

**ALKATETZAREN PROPOSAMENA –
COLISEO ANTZOKIAN ZINE
KOMERTZIALEKO ZERBITZUA
EMATEAGATIKO TASA.**

Eibarko Udalak Coliseo Antzokiko aretoetan sustatzen duen zine komertzialaren proiektioarekin hiriarentzat kultur eskaintza egonkorra eta interes orokorrekoa sortzen da. Aisialdiko eskaintza bat ematen zaie herritarrei, zinema komertzialean, Europako zinemari eta egile-zinemari oinarrituta. Emanaldiak larunbatetik astelehenera egin dira azken urteotan, eta gure herriko zinema-aretoen faltaren alternatiba bat dira.

2020ra arte, zinema komertziala emakida bidez kudeatu da, eta enpresa pribatu batek ustiatu du.

COVID-19k eragindako osasun-krisiaren eta streaming plataformen ezarpenaren aurrean (Netflix, Disney, etab.), emakidaren enpresa esleipendunak jakinarazi zuen ez zela berriro aurkeztuko, emaitzak errentagarriak ez zirelako.

Zine komertzialaren ustiapena emateko pleguan sarrerengatik ordaintzen ziren prezioak jasotzen ziren. Hona hemen prezioak:

- Sarrera arrunta 5,5 €.
- Larunbat eta igandeetako lehen saioetako umeendako sarrera 4 €.
- Astelehenetan, ikuslearen eguna 4 €.
- Sarrerak Coliseoren Laguna txarteekin 4 €.

Hori horrela izanik, beharrezkoa litzateke Zerbitzu publikoak eskaini eta jarduera administratiboak burutzeagatik ordaindu beharreko tasen ordenantza arautzailea, zine komertzialari dagokionez aldatzea, tasen xedearen deskripzioa errealitatera ahalik eta gehien egokitzeko eta, hartara,

**PROPUESTA DE ALCALDIA – TASA
POR PRESTACIÓN DEL SERVICIO DE
CINE COMERCIAL EN EL COLISEO
ANTZOKIA.**

Con la proyección de cine comercial que promueve el Ayuntamiento de Eibar en las Salas del Coliseo Antzokia se genera una oferta cultural estable y de interés general para la ciudad. Se cubre una oferta a la ciudadanía en el ocio, basado en el cine comercial, cine europeo y cine de autor. Estas proyecciones durante los últimos años se han realizado de sábados a lunes y pallian la ausencia de salas de cine en nuestra ciudad.

Hasta el año 2020 el cine comercial se ha gestionado mediante concesión, explotándolo una empresa privada.

Ante la crisis sanitaria provocada por la COVID-19 y la implantación de las plataformas de streaming (Netflix, Disney, etc...), la empresa adjudicataria de la concesión comunicó que no se volvería a presentar dado que los resultados no eran rentables.

En el oportuno pliego para la concesión de la explotación de cine comercial se contemplaban los precios que se abonaban por las entradas. Los precios eran los siguientes:

- 5,5 € la entrada normal.
- 4 € la entrada infantil en la primera sesión del sábado y domingo.
- 4 € los lunes, como día del espectador.
- 4 € las entradas con tarjeta Coliseoren Laguna.

Siendo esto así, sería necesario modificar la Ordenanza reguladora de tasas por prestación de servicios públicos y realización de actividades administrativas en lo referente a cine comercial para que la descripción del objeto de las tasas se acomode lo máximo posible a la realidad

proporzionaltasunaren eta segurtasun juridikoaren printzipioa betetzeko.

y cumplir así con el principio de proporcionalidad y de seguridad jurídica.

Proposamen hau eta behin betiko onespina jasoko duen araudia Eibarko Udalaren webgunean kaleratuko dira; era horretan, Coliseoko zinema komertzialaren prezioetan sarbide erraza, unibertsala eta eguneratua izan dezaten zerbitzu horren erabiltzaileek. Hori guztia gardentasun-printzipioaren baitan.

Esta propuesta, así como la normativa que definitivamente se apruebe, serán publicadas en la página web del Ayuntamiento de Eibar para posibilitar el acceso sencillo, universal y actualizado a los precios del cine comercial del Coliseo a las personas usuarios de dicho servicio. Todo ello en base al principio de transparencia.

Efizientziaren printzipioak dioena betez, araudian tasa hauek txertatzearen helburua baliabide publikoen kudeaketa arrazionalizatzea da.

En aplicación del principio de eficiencia, las inclusión de estas tasas intenta racionalizar la gestión de los recursos públicos.

Azkenik, adierazi behar da planteatutako tasa sartzeak ez diela aurrekontu- eta finantza-egonkortasunari eragingo, ez baita aldatzen orain arte kobratzen ziren kopuruak.

Por último, indicar que la inclusión de la tasa no va a afectar a la estabilidad presupuestaria ni financiera dado no se alteran los precios que se cobraban hasta ahora.

Esandako guztiagatik, HAUXE PROPOSATZEN DUT:

Por todo lo anterior, PROONGO:

Zerbitzu publikoak eskaini eta jarduera administratiboak burutzeagatik ordaindu beharreko tasen ordenantza arautzailean Zinema komertziala azpiatala SARTZEA, honela geratuko litzateke idatzita:

INCLUIR el siguiente subapartado de Cine Comercial en la Ordenanza reguladora de tasas por prestación de servicios públicos y realización de actividades administrativas, quedando redactado de la siguiente manera:

ZINE KOMERTZIALA
SARRERA MOTA

SARREREN
PREZIOA

Sarrera arrunta	5,50 €
Ikuslearen eguna	4,00 €
Larunbat eta igandeetako lehen saioetako umeendako sarrera	4,00 €

CINE COMERCIAL

TIPO DE ENTRADA

PRECIO DE
LAS
ENTRADAS

Entrada normal	5,50 €
Día persona espectadora	4,00 €
Entrada infantil de primera sesión de sábados y domingos	4,00 €

Eibarren, 2021eko uztailaren 28an

En Eibar a 28 de julio de 2021

Alkatea
Jon Iraola Iriondo

El Alcalde
Jon Iraola Iriondo

